



Hernani Palestina herri dinamika honetara bildu garenok, Palestinaren egoerari kezka eta amorrus begiratzen diogun norbanakoak gara, herritarrak. Bat egitera eraman gaituen kezka eta amorru hori herritar gehienek partekatzen dutela uste dugu. Herritarrengandik gertuen dagoen erakundea izanik, ezinbestekoa irizten diogu HERNANIKO Udalak herritar gehienon kezka eta amorru hori bere egin, eta egunez egun Israelgo Estatuak egiten ari den nazioarteko zuzenbidearen urratze larria salatu dezan.

ZIOEN AZALPENA

Estatu sionistak Palestina erasotzeko hartutako erabakiaren ondorioz, joan den urriaren 7tik milaka pertsona hil ditu, ehunka zauritu, eta asko eta asko alde egitera derrigortzen ari dira, bonbetatik ihesi leku seguruago batera heltzeko aukerarik gabe, Israelek mugak itxi eta blokeo egoera mantentzen duelako.

Urriaren 7az geroztik, Israelek 29.195 palestinar hil ditu, hoietatik 9.600 haurrak dira. Israel 136 haur hiltzen ari da egunero Gazako zerrendan; hilabetean, 2019az geroztik munduan izandako gatazketan denera hildako haurren kopurua gainditu du Israelgo Estatuak Gazako zerrendan.

Gutxi balitz, beste 8.000 gorpu erreskatatu gabe edo desagertuak bezala kontabilizatzen dira. 69.170 zaurituak.....gosete arriskua gerra arma bezala erabilia.....eta zirrara sortzen duen abibide luze bat.

Israelgo Estatuak herritarren kontra hasitako oldarraldi indiskriminatua justifikaziorik gabeko eraso da, inoizko larriena, eta nazioarteko zuzenbidearen urraketa nabarmena, egonkortasuna eta segurtasun globala arriskuan jartzen dituen.

Horregatik guztiagatik, HERNANIKO Udaleko alderdi politikoei honako hau onartu dezatela eskatzen diegu:

1. HERNANIKO Udalak irmotasun osoz arbuiatzen ditu Israelgo Estatuak Gazako zerrendan zein Palestinako beste lurraldeetan egiten ari den ekintza militarrik, nazioarteko zuzenbidearen urraketa larria dakartenak. Justifikaziorik gabeko eraso da, eta herrialdearen segurtasuna eta egonkortasuna ahultzen ditu.
2. HERNANIKO Udalak erasoak berehala gelditzeko eskatzen du, eta Israelgo armada Palestinatik erabat erretiratzeko. Palestinaren subiranotasunerako eskubide osoa eta lurralde-osotasuna erabat babesten eta errespetatzen ditu.
3. HERNANIKO Udalak Palestinari eta hango herriari erabateko elkartasuna eta estimua adierazten die. Bizien galera deitoratzen du, eta atsekabe sakona agertzen du, biktimengatik eta herritarren alferrikako sufrimenduarengatik.
4. HERNANIKO Udalak Europar Batasunari eskatzen dio beharrezko laguntza finantzarioa eta humanitarioa eskaintzeko Palestinari eta Palestinako herriari, nazioarteko komunitate osoarekin koordinatuta. Larrialdiko erantzun humanitarioan ahaleginak areagotzeko eskatzen du. Israelgo Estatuari gogorazten dio nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzeko betebeharra

5. Europako Batasunari, Espainiako Estatuari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die, ahalik eta azkarren antolatzeke, eraso militar horretatik erator daitezkeen errefuxiatuak ahalik eta baldintzarik onenetan hartzeko. Eta agintari eskudunen esku jartzen du harrera espazio bat, iragaitzazko migratzaileei zuzendua, behar izanez gero Palestinatik iristen diren errefuxiatu horiei harrera emateko. Halaber, konpromisoa hartzen du harrera duina bermatuko duten espazioak eskaintzeko haur palestinarrei.

6. HERNANIKO Udalak irmo eskatzen dio Israelgo Estatuari, nazioarteko legedia errespetatzeko, armak baztertzeko eta bide diplomatikoetara itzultzeko.

7. HERNANIKO Udalak Europako Batasunari eskatzen dio ahalegin handiagoa egin dezala kudeaketa diplomatikoen bidez deseskalatzea bultzatzeko eta bakeari eusteko.

8. HERNANIKO Udalak konpromisoa hartzen du Israelgo jatorria duten pertsona elkarte edo eragileekin kirol, kultur, edota bestelako izaera duen ekitaldirik ez antolatzeke.

9. HERNANIKO Udalak bat egiten du Israelekiko boikot ekonomikorako deialdiarekin eta konpromisoa hartzen du Israelgo jatorria duten produktu edota kontrataziorik ez egiteko, ez israeldarren zigor modura, Israelgo Estatuak Gazako zerrendaren zein Palestinako beste eremuen aurkako erasoak bertan behera utzi ditzan, okupazioa amaitu dezan, apartheid sistema eraitsi dezan, eta errefuxiatu palestinarren itzulera eskubidea berma dezan presio neurri gisa baizik.

10. Europako Batasunari, Nazio Batuen Erakundeari eta bestelako nazioarteko eragileei Israeli laguntza humanitarioari sarbidea emateko mugak berehala zabal ditzan exijitzeko eskatuko die HERNANIKO Udalak.

11. HERNANIKO Udalak Palestinako bandera Udalaren baikoi nagusian eta beste udal eraikinetan jartzeko konpromisoa hartzen du, hilabetez, Palestinako herriarekiko elkartasun keinu gisa.

12.- Azkenik, HERNANIKO UDALAK Hernani Palestina Herri Ekimenarekin bat egiten du Martxoak 2ko egunean, 2 orduko konzentrazio aktibo txandakatuan parte hartuz eguerdiko 12 etan Plaza Berrin. Deialdi berean gonbidapena luzatzen die erakunde-ordezkaritza duten alderdi politiko guztiei eta, eta herritarrei oro har ere.

Hernanin, 2024ko Otsailaren 21a.

HERNANI PALESTINA HERRI EKIMENA



EKS | CSV: **SIER61f0a81b-2480-40c4-a13e-ecd780d925f1**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>